



Joseba
Zubimendi
Martiarena

1897-1939

BIDeGILEAK

Egilea:

Inazio Mujika Iraola



JOSEBA ZUBIMENDI MARTIARENA

(1897-1939)

Utz iezadazu, irakurle, biografia hau nahi dudan unetik hasten. Nahiz eta nahi dudan une hori ez den biografiatuaren bizitzan goxoena, eta bai mikatzena, seguru asko.

Espainiako Gerra hasi zela ez da urtebete, baina Mola eta Franco jeneralen osteek setiatuta dute Bizkaia. Joseba Zubimendi Martiarena Eusko Gudarosteko komandanteak berrogei urte bete berri ditu eta, bi urte geroago hilobira eraman zuen bu-larreko gaitzaren lehen zantzuak sentituta, guda-oinetik Gernika ondoko Errigoitira eraman dute, San Jose izeneko erietxera.

Handik ikusi ditu Zubimendi eriak suagak (bonbak) jausten herriaren gainean. Apirila da eta udaberriak ez du etorkizunik. Handik urte pare batera, bere mundualdiko azkenean, luma hartu eta han bizi izan zuena kontatu zuen.

Gutxitan irakurri dut Gernikako bonbardaketaren deskripzio horren bizia zuze-nean bizi izan zuen lekuko batek egina. *Euzko Enda* aldizkari jeltzalean, 1939an, argia ikusi zuenetik ez da, nik dakidala, berriz argitaratu kronika hau, horregatik, eta Zubimendiren bizitzan izan zuen eraginagatik hona ekartzeko erabakia hartu



Zubimenditar Joseba komandantea

dut, bide batez haren kazetari sena dastatu ahal izateko hasieratik bertatik.

ERRIGOITIRUNTZ igoka dijoan bidaundiaren eskubi aldean josita, Aizerrota mendiaren sortalde magalean, Joseba Deuna egoitza. Gernika uriko begiratoki eroso, gentza [bake] aldian lekaime etxe asmoan jaso bazan ere, bukatu baño len, guda-eritegi.



Euzko Enda, 1939

Jauregi onetan nintzen eri aspaldixko. Egun gogoangarri artan orrillak [apirilak] 25 zituala, gelaz aldarazi ninduten goize-tik; oe bakarreko estu bat, ene areto zabalaren truk. Gudoñetatik zaurituak parrastaka bai zetozten eta etxea oro estuegi. Baña ez uste guda erasoak urbil ziranik: ogei bat aneurkin [kilometro] gutxienez Markina inguruan alderenez zebiltzanak.

Udaberriko egun argi gardena zan; iza-di ugaritsu irrikoia, eguzki diztirakor azpian, eskeintzalle. Ortze ta lur agirian, oro alaitasun; dena irriparre; guzia zorion. Gudaren oial beltzak estaltzen zituan orde, izadiaren izpiak; kanpoko dirdirak, biotz barrengo itun laño. Ainbeste gazte



adin lorekoren eriotzak, orok sumintzen
ginduan, guziak biotz-illuntzen. Bañan
alare arratsaldeko gertaeraren egi latza ain
urrun...

* * *

BAZKALONDOKO lo-kuluxka egazkin
alderatze run-rrunak eten zidan. Eleiz ez-
killak, binbilin-banbalan, leia biziz, zein
geiagoka. Soinu ura, ain maiz entzunaz,
adiskide zartzat gendun eta ñork jaramon
gutxi; baña, egundo gerta etzana, egun ar-
tan seaska ta illobi. Bat-batean, nere oetik,
izugarrizko dunbota entzun nuan eta sa-
llean beste bost. Arnasari eutsita adi-adi;
egazkiña, bere eriotz lana amaituta urrun-
du zitzaigun, urrundu...

Enitzan oetik mugi; egazkin egitekoak amai
ziralakoa, atsa lasa, nere onetara nento-
rrelarik, berriro run-rrun-ots alderatzea:
lengoa baño biziago, zaratatsuago ta izki-
llazkarren [metrailadoreen] tarra-pa-tata
kantariak azantz guzien nagusi.

Suagak [bonbak] lertzearen dunbatekoa!
Leiar puskak aidean dantzari, aize inda-
rrak ene leioa orpotik atera ta aurreko ate
irikiarekin bat, joka, lurrean zati zitzaizki-
dan. Jaiki ta, erdi jantzian, irten nintzan
gelatik. Albokoan, ogei urte doi-doi, mu-
sua izara bezin zuri, begiak zabal-zabal
gudari beltzaran gaztea.

—Jaiki adi, motel —esan nion—, emen ez
gatxaudek ongi. Goazik bera...



—Pakean iltzen ezin utzi! —erantzun ta beste aldera jira zitzaidan.

Bata besteari lagunduaz, buru, beso, be-launetan lotura zurik, eztul ta erren, goi-tik bera mutil eriak zalapartan.

Gudari batek ikustatzera joandako arrebari onela zion: «Jainkoagatik aldegin zan, nes-ka. Joari bera, nereak egin din eta. An edo emen berdín zaidan. Amari esaion...».

Jetxi nintzan ni ere. Be-alde ura ez ikuste-ko obe: Ugaldetar Josu sendagillea, ber-tako artezkaritzari jarraituz, orok lasaitu alegiñean. Bazuan, ba, naiko lan bere bu-ruakin ere, baña... Labadiatar Blas tolo-sarra, bitartean, gizontsu, zauritu baten bizia gorde naiean, eriotzakin borroka. Ugaldetar Miren ta Karnele aizpa gaixo-zañak, alboan laguntzalle.

Sukalde ondoko janaritegira zuzendu nin-duten Abeituatar Edurne ta Garbiñe aiz-

pak. Leku estu artan ogei bat lagun bata bestearen gainka; arek omen zuan sapai-rik sendoena. Alki bat eskeñi zidaten ta jarri nintzan. Ez luzaroan! Berriro urru-tiko run-rrun soñua alderatzen; txistu, orru, trumoi, zarata, gero ta indartsuago ta maizago; gain-gañean une batez.

Zunpatekoak gortu bearrean, aize-inda-rrak ausi du mendi aldeko atea ta an goaz zabuka alkar naasian! Azken ordua irudi-menean orok, nik ez diot egundo Jaunari otoitz kartsuagorik egin.

Burrunbotsaren igesteak, bare alditan, ixillaren utsak bai eder aundi! Mingain zi-kiñez birauka ausiko zuan zori gaixtoko siñets galduren batek eta otoitz marmar-ren beroak aldamenetik oiartzun.

Onela, berriz ta berriz, illunabarra ortzean nagusitu arte. Egundaño gaurik ez da izan maiteago; itzalaren jaubetzea, nai uts, bero, bizi; eguzkiaren amaia opa guziok eta berau beñere baño argiago, odol ixur-tze ikaragarriaren lekuko sorgor.

Aizerrota mendi tontorrean, arrixko ezau-pide, ikurrin gorria. Uneoro berari so, bare aldietan noiz jatxiko irrikitzen; bañan arra-tsalde osoan ikurrin gorria makillean tinko.

Noizik-beinka, egazkin zarata urrun, leio-etatik begira, ausarki an zebiltzan iru, sei ta

bederatzinaka, sallean, kurrilloen egabide. Oiz mendi gañetik Mundaka ibaiari lotuak, Busturia aldean bira egiñik, Gazteizera itzuli. Donosti itxasaldetik ere igorri zizkiguten eriotz zamak; besteekin gurutz egiñaz, goi ta be oro errauste.

Eta bitartean, lekaime gaixoak aldare aurrean otoitz eta otoitz. Larruzea andereño erizaña, jetxi-eziñean geldo ziran zaurituei ur-emale atsegin, ezti.

Arratsalde erdira, eskuin aldeko etxe eder berri batek tellatu gaña, aize biguñez kulunkan, su ta gar zerion. Inguru guzian, lurretik jaioko balira lez, sutarazle agak [bonbak], argi-txakur jostarien irudi, piztu ta itzal fu-fuka.

Orotan su-txinpart otsak eten gabe. Garrezko zelaian, alegin biziz, zaldi bat iges ero antzo, bat-batean, buruz aurre zabuka, ilda, geldo. Txekor batek itxuan, zuaitza aurrez aurre jota, bertan zerraldo. Ardiak iges, zakurrak zaunka, egaztiak bira biurri...

Aldiz aldiz, banakaren batzuk mendi aldera larri. Egazkiñetatik esku suagaz edo izkillazkarrez jarraiko diete. Berdin zaie aur edo gizon, emakume edo abere. Bizia duan oro berdin: ez du deusik geldo bear zutik.

Noizpait illunabarra iritxi zan; azkeneko egazkiñak, urdin-illun, Donostiruntz jo

zuten ta oztetza [jendetza], begi-larri, musu-zurbil, ille-naasi, arrituta alkarri begira; ezin luzaroan berera biur. Matrail guziak legor, begiak antzu, malco iturriak agor.

Ama gaxoak laxterka ta karraxi: «Nere mutilla, nere mutilla»! Aurtxo aingeruak «ama, ama!» ojuka. Alde orotan naspil ta orru; bañan, arrigarri!, iñon negarrik ez.

Laxter asi ziran zaurituak ekartzen, aur elbarriak, beso moztuak zintzilik; xaar gaxoak, ixtarrak kolokan...

Orduko nere gogo bizia, sendiratzea; emazte aurren albora ega nai. Berebillak, andik emendik, eldu ziran. Beraietako batera, emeki-emeki. Ugalde osagillearen seme gazteak, gerri eztuntza biguñean, lagun zi-



ran ta illunak oro estaltze garaian, Bilbo-
runtz abia.

Errigoiti bitzabaleko erpin batean, Lot
emaztearen irudi, gure Gernika, Sodo-
ma ta Gomorra berri, ikusmiñez eraginda
bira giñan. Ke-mordo beltz astunak zeru-
ra bide, begi aurrean; sutontzi ikaragarri,
bartzargabea an, beian; txinpart gorri-illun
margoko su mingain, gar ori-itsez nastu-
ta. Gauaren illuna etenaz, inguru mendi
bideetan, sualdiaren errañu, guzia argi.
Oroz gaingandiko ikuspegi eder, aundi, ika-
ragarria!

Onela ikusi nuan azken aldiz, eusko seme
ororen maite kutuna zan Gernika uria.
Gure betiko etsai bigurri gaiztoak, arrano
beltzen egapean suntsitu nai izan zuten.

Andik laxter sendiratu nintzan. Nere edes-
-esana, ain egintza zakar, lizun, biotzgea,
neork ezin sinetsi. Gau artako nere loa,
ameskaitzez, nun-nai sua; pizti-mamuak
orruka ega zorotan; odol itxasoan ito bear...

* * *

BIARAMON goizean, oe alboan neukan
irratentzukiaren ots emaleari eragin nion.
Donostian nerekin sarritan mintzo-lana
alda oi zuan emaztekoa solasean. Ustekabe:
«Gernika ha sido incendiada por los
rojo-separatistas en su retirada...».



Ene Jainkoa, aski dut, aski ;Au ere entzun
bear!, eta musua burukoan josita, negar
zotiñak ler ziran barrena; ausi malko es-
tuntza iturria.

Eta, geroztik, Gernika erraustearen ikuspe-
giak baño, biaramonean entzundako gezur
nardagarriaren zulatze miña zorrotzago.

Baina nor zen honela idazten zuen idaz-
le hau?



Bidea eratzen

Gogoan dut Koldo Izagirrek ekarri zigula Alberdania argitaletxeko bulegoetara Joseba Zubimendiren liburu-gai bat argitaratzeko. Artikulu bilduma bat zen, Parisko *Euzko Deyan*, 1939an, argitaratu zena, bertsolaritzari buruzkoa, baina baita gerrari eta exilioari buruzkoa ere. Joseba Zubimendiren berri oso gutxi genekien eta ez genekien ondorengorik bazuen edo ez. Artikulu bildumak *Bertso-miñez* zuen izena, eta bertsoak agertzen baziren ere, mina zen benetan gaia, hitzaren bi zentzuetan, nostalgia eta oinazea. Donostiako euskal idazleei eskainitako gure sail batean argitaratzea pentsatu genuen, eta hala iragarri genuen egunkarietan. Biharamunean dei bat izan ge-

nuen. «Arratsaldeon, Iñaki Zubimendi naiz, Josebaren semea.»

Iñakiri esker, gauza gehiago jakin ahal izan genuen Josebari buruz. Koldo Izagirre eta biok egon ginen haren etxean eta maitasunez erakutsi zigun bere familian gordeta egon diren aita zenaren oroitzapenak. Gero, liburua atera genuen eta Koldo Izagirrek hitzaurre jakingarri bat ipini zion. Nik, hemen, haren hitzaurrea erabili dut datu biografiko gehienetarako eta nire datu eta oroitzapen batzuk ere erantsi ditut.

* * *

Joseba Zubimendi Martiarena donostia-rra zen, eta adjektiboren batez laburbil-



Saski-Naski antzezlanean. Eseritakoen artean lehena, ezkerretik hasita, Zubimendi

du nahi izanez gero haren lana, zaletasuna eta gogoia, euskaltzalea zela esan behar da aurren-aurrena. Euskaltzalea, behar zenerako eta beti lanerako prest. Hogeita hamarreko hamarkadan bat baino gehiago izan zen era horretakorik Donostian, Gipuzkoan eta Euskadi osoan, geroko gertakari historiko odoltsuek isilarazi eta ezkutatu dizkigutenak, eta gaur egun izen huts obrarik gabeak direnak eta mereziko luketenak ahanzturaren ilunetik argira ekartzeak. Euzkadi zuten amets. Euzkadi euskaldun bat. Batzuk hil egin zituzten, beste batzuk atzerrira bidali, denak isilarazi nahi. Baina haien Euzkadi euskaldunaren amets hark bizirik dirau. Errepu-



blika aurretxoan eta Errepublika garaian piztu zen esperantzazko euskal giro hartan murgilduta ibili zen Zubimendi, beraz, eragile, bidegile, bultzatzaile eta bera ere egile. Kantari, itzultzaile, kazetari, irrati esatari, olerkari, antzezle...

Donostian jaio bazen ere, aita ez zuen donostiarra. Graziano Zubimendi azpeitiarra zen, Gallegi baserrikoa eta hargina lanbidez. XIX. mende bukaera aldera, Donostian katedral bat jaso behar zutela eta, lanera etorritako langile haietakoa. Eraiki behar zuten katedral hari Artzain Ona jarri zioten izen, eta, hango lanak bukatu zirenean, ogi-banatzaile ere aritu zen Graziano hainbat urtez. Maximina Martiarenarekin ezkondu zen, Donostiako Anoeta baserriko alabarekin, eta hiru seme izan zituzten: gure idazleaz gain, Jesus,

Hernaniko organista gerra etorri zen arte, orduan kendu baitzioten lanpostua, eta Andoni, praktikantea eta oin-sendagilea.

GAZTAROA

Joseba, 1897ko martxoaren 12an jaio zen.

Umetan eta gaztetan, kantari ibili zen. Umetan ezaguna omen zen haren tiple ahotsarengatik, eta elizkizun handietan kantatzen omen zuen. Gaztetan, berriz, Donostiako Orfeoi entzutetsuko tenor bakarlaria izan zen eta modu horretan ezagutu zituen hainbat herri eta hiri, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo. Arrazoi politikoak tarteko zirela, Orfeoi horretan haserrealdi bat izan zen eta abertzaleekin bat egiten zutenek Eusko Abesbatza sortu zuten. Haiekin zen Joseba Zubimendi ere.

1915ean, ez mutil-koxkorra beraz, hemezortzi urterekin, Arantzazura joatea erabaki zuen, fraide ikasketak egitera. Hogei urte bete zituen arte, bi urtez egon zen hango fraidegaitegian, eta han sakondu zituen euskararekin batera bere bi zaletasun handienak: musika eta marrazkigintza.



Txanton Piperri kantatzeko prest

Geroko bere kazetari-lanetan, bi arte horiei leku berezia eman zien, berak idatzitako eta berak besteri agindutako lanetan.

Hogei urteko gaztea, ordea, fraide bizi-tzarekin laketu ez, eta Donostiara itzuli zen. Aurrezki Kutxa Probintzian hasi zen lanean.

Berehala soldadutzara joatea egokitu zitzaion, 1919an. Honela dio Koldo Izagirek, haren lanari jarraitzen baitiogu hemen: «Permiso bat baliatuta, soldadu jantziak kentzeko astirik gabe, mitinera joan zen 1920ko Maiatzaren Aurrenekoan lagun ba-



«JEL. Nere olerki ta ipuiak jartzen ditut emen, beren egun ta oarrakin, beartzen naizenian ondo txukunduta danak arkitzeko. Zubimendi'tar Joseba. Donostian, 9-11-1920»

tekin. Han baten batek begiz jo eta salatu egin zituen, nonbait. Kalabozora bota zituzten. Gertakari honek izango zuen zer ikusia, segurenik, bere soldadutzak hartu zuen bilakabidean. Abd-El-Krim-en abertzaleek tropa espainiarretan Annual-ekoan egin zuten sarraskiaren ondorioz, Afrikarako mobilizatu zituzten soldaduen artean eraman zuten Joseba Zubimendi».

Ez zen beraz hasieran aipatu dugun Espainiako Gerra Zibila izan, bizi izan zuen aurrenekoa Zubimendik. Eta nork daki handik ez ote zuen kronikarik idatziko ordurako sortua zen *Argia* aldizkarirako. Garai hartako *Argian* bada Afrikatik bidalitako kronikarik behintzat. Ikertu egin beharko litzateke.

Kontua da, behintzat, hasia zela idazten eta argitaratzen *Euzkadi* egunkarian eta *Gipuzkoarra* aldizkarian. Iñaki semeak gordezen duen koaderno bat ikusia naiz lehen urte haietako olerki guztiak, argitaratuak eta argitaragabeak, biltzen dituen. Hone-lazioen lehen orrian: «JEL. Nere olerki ta ipuiak jartzen ditut emen, beren egun ta oarrakin, beartzen naizenian ondo txukunduta danak arkitzeko. Zubimendi'tar Joseba. Donostian, 9-11-1920».

Afrikako gerra eta bere soldadutza bukatu zirenean, Donostiara itzuli zen atzera, eta, 1924an, Maria Darras Villabonako alabarekin ezkondu zen. Urbieta kalean jarri ziren bizitzen, 24. zenbakian. Lau seme-alaba izan zituzten: Iñaki, Mikel,



1927ko ekaina: Joseba eta Maria senar-emazteak, Iñaki semearekin

Xabier eta Arantxa, bi urte zituela meningitisak hila. Hiru anaiak bizi dira.

Hogeiko hamarkadan, Primo de Riveraren diktadurapean, jardun politikorik ezin zen egin, eta Joseba, beste euskaltzale eta abertzale asko bezala, kultur eta kirol jardunean sartu zen. Hainbat elkar-teren sorkuntzan parte hartu zuen: Loyolarrak eta Ur Kirolak dira horien lekuko. Futboleko epaile kolegiatua izan zen, gainera. Baina bere jardun nagusia idaz-



tea izan zen orduan ere, eta idatzi, *Argian* idatzi zuen. Erreportajeak idazten zituen, bere Kodak argazki makina hartuta, gainera. Hala dio Koldo Izagirrek: «Donostiara iritsi orduko hasi zen Joseba aldizkarietan kolaboratzen, bera Afrikan zegoela sortua zen *Argian* bereziki. Kazetari osoa, beti zeraman Kodak kamera aldean, erreportajeak egiteko hango eta hemengo herrietara irten behar izaten zuenean bereziki. Halakoetan maiz eramaten zituen Iñaki semea eta Tomas iloba, Tomas Ezeizabarrena, gaur egun Tokion erretiratu-ta bizi den Sophya Universityko irakasle ohia, aita Thomas jesuita. Josebak bi haurrei eginiko argazkia baliatu zuen *Argiak* “promo” bat egiteko, aldizkaria irakurtzen ageri direla».

BERTSOLARI
GVDVAK
1935-1936



EUSKALZALEAK

Euskaltzaletasun bideak zabaltzen

BIKOTE ERAGILE BAT

Argia aldizkaria izan zen hogeita hamarreko urteetan etorri zen berpizkundera-ko ernamuina. Eta kazetaritzak hor izan zuen mintegi aberatsa. Piztueraren lehen zuztarrak lehenagotik zetozen, besteak beste Zumarragan eta Arrasaten egin ziren jai euskaltzaletan, baina erabateko loraldia Errepublikak etorri baino urtebete lehenago lehertu zen. 1930eko ekainean, hain zuzen, *El Día* egunkaria sortu zen, eta Ander Arzelus *Luzear* jarri zuten egunkari horretan «Euskal Orri»ren arduradun. *Argia*ko idazle ugarienetarik bat izan zen Luzear. Azken urteetan, zuzendari ere bai. Handik egin zuen jauzi *El Día*ren «Euskal Orri»ra, eguneroko

apustura. Egunkaria zuten amets orduko euskaltzaletan, 1937. urtea arte ez zuten lortu baina. *Eguna*, gerra bete-betean, sortu zen arte, hain zuzen ere.

Nekez aurkituko da ekintza euskaltzaletan bat garai hartan Luzear bertan egon gabe, edo are, haren parte-hartze zuzenik gabe. Donostian eta Gipuzkoan behintzat, ez. Orobat, Donostiako euskaltzaletasunaren bultzatzaile handiak laguntzaile ederra izan zuten. Bata bestearen laguntzaile baino, elkarren laguntzaile izan zirela esan daiteke: Joseba Zubimendi eta Ander Arzelus. Bi izen horiek, neurri handi batean, elkarrekin doaz itxaropen bideko urte horietan. Biak aurrezki kutxako enplegatu huts, ordu libreetan

euskalgintzan gogotik ari zirenak, musu truk. Zubimendik sortu zuen, 1931n, eta berak kudeatu zuen 1936a arte, *El Pueblo Vasco* Rafael Picavea *Alcibar*-en egunkari-ko euskal orria (asterokoa) «Euskal Eresi ta Izkuntzaren Alde» izenburua zuena. Beraz Luzear *El Día*n eguneroko atalarekin eta Zubimendi *El Pueblo Vascon*, as-tero, euskal erreferentzia nagusi bihurtu ziren Gipuzkoan. Bizkaian, berriz, lan berean jardun zuen Lauaxeta olerkariak, *Euzkadi* egunkarian. Bide batez aipa dezagun zein izan zuten azken patua euskal kazetaritzaren lehen hiru bultzatzaile horiek: bata fusilatua eta beste biak, exilioan (ezen ez atzerrian, Baionan eta Kanbon hil baitziren) gazterik hilak. Luzearek, gainera, sei urteko kartzela zigorra bete zuen, aurrena ezarri zioten heriotza zigorraren ordezkotzko.

«Euskal Eresi ta Izkuntzaren Alde» asteroko orrian Zubimendik albisteak, artikulua, olerkiak, denetarik argitaratzen zituen, bereak eta besterenak. Tituluak adierazten duen bezala, *El Día*ko eta *Euzkadiko* euskal orrietatik oso berezia egiten zuen atal bat zeukan honek: mu-



1. Jose Antonio Agirre; 2. Leizaola; 3. Irujo; 4. Altzeta; 5. Monzon; Leizaolaren atzean, Zubimendi EAJren ekitaldi politiko batean

sika. Gure kantu zahar eta modernoan partitura eta letra argitaratu zituen aldiro, orrialdea bera berezi eta erakargarri eginez, eta baita bildumagarri ere. *El Pueblo Vascon* euskal orriak, gaine-




«Euskal Eresi ta Izkuntzaren Alde» (*El Pueblo Vasco*) (1931)

ra, garrantzi berezia eduki zuen, harekin euskarak presentzia garrantzitsu bat hartu zuelako alderdi abertzalearen agindupekoa ez zen komunikabide batean, *El Día* eta *Euzkadi* Alderdi Jeltzalearenak baitziren.

IRUDIPEN ZOROAK

Bada artikulu bat Luzearrena, 1931ko irailean *El Pueblo Vascon* argitaratutakoa, urte haietako euskaltzaletasunaren egitekoa apustu batean laburtzen duena. Eta hain zuzen ere, Zubimendiri eskainita dator, eta ez bakarrik hark zuzentzen zuen orrian argitaratu zelako. Bi adiskideek elkarrekin



«Irudipen zoroak»
(1931ko irailean)

egindako ametsak kontatzen ditu, eta, bertan, autoreak erronka jotzen dio lagunari. Izenburu adierazgarriagorik nekez aurkitu: «Irudipen zoroak». «¿Oroitzen al aiz,



Irratsaia etorritako jendearekin

Joseba?», hasten da. «Atzo, zinean izana nauk. Gabero, radio entzun oi diat. Eta antzoki, zine ta radio nastu dituk cocktail biurrienean; burua zoratu zidatek. Eta irudipenik zalapartarienak irten nai bizian zebizkiat. Irudipen zoro oiek, Euzko Gaztedia-ra eskeñi nai zizkioat. ¿Zoro batek, eun zintzo zoratu oi dituala etzio-tek ba? Ia ba zorakeri abek, norbaitek egi biurtzen ote dizkiken.» Baina zein ziren irudipen zoro horiek, Josebak eta Anderrek, Anderrek eta Josebak elkarrekin egin zituztenak?: «Antzokia! (Teatroa). Irudibiltegia!! (Zinea). Irratizkiña!!! (Radioa). A zer iru lagun, gure zabalkunderako! Ta irurok, gure deiaren zai-zai bezela dauz-

kagunak. Jakiña, gauza guzitarako bezela, diru apur bat bear. Ta diru apur ori, duanaren eskutatik ezpadator...». Hiru zutabe horiek ikusten dituzte beharrezkoen, egunkariarenaz gain, euskaltzaletasuna zabaltzeko. Antzerkian aurrera egin zuten, eta ez gutxi. Zineman huts egin zuten, zezakeenak ez baitzuen eskurik zabaldu, baina irratigintzan, behintzat, lortu zuten «irudipen zoro» hori aurrera ateratzea. Astean behingo saio bat lortu baitzuten euskara hutsez egina, 1932tik aurrera, Donostiako *Unión Radion*. Arduradunak, Joseba Zubimendi eta Ander Arzelus *Luzear*. Estudioa, Donostiako «Avenida»n, Askatasunaren hiribidean, 27. zenbakian.



Luzear eta Zubimendi irratsaioaren ondoren

Asteazkenero egiten zen. Arratsaldeko zortzietan hasi eta bederatziak arte irauten zuen. Eusko Gaztedik antolatzen zuen irratsaioa. Angel Lizarragak jendea eta behar zen guztia bilatzen zuen, Txomin Olanok eta Bruno Imazek pianoa jotzen zuten eta Luzeurrek eta Zubimendik, orduko hitzez esateko, *speaker* lanak egiten zituzten. Ordubete horretan, hizlariak eramaten zituzten, txistulariak, bertsolariak, olerki errezitatzailerak, abeslariak eta abar, Gipuzkoako herri guztietakoak. Inork ez zuen ezer kobratzen eta Aldundiak 2.000 pezetaren dirulaguntzarekin atera zen aurrera. Luzearren alaba Amalek, artean hamar urtekoa zela, haurrentzako saiotxo bat egiten zuen.

Garai hartako donostiarrak eta gipuzkoarrak ez zeuden ohituta gure hizkuntza irrati-entzutera, eta ia miraz begiratzen zioten beren hizkuntzan mintzo zen kuxa hari. Donostiako Intza tabernan biltzen ziren euskaltzale batzuk irratsaioa entzuteko. *El Día*ko orrialdeetan agertu zen iragarkiren bat edo beste, nahi zuten euskaltzaleek tabernako giroan saioa elkarrekin entzuteko. Garai hartako xehe-

tasun asko kontatzean, bide batezko ohar odoltsuak egin behar baitira, esan dezagun Intza tabernako jabea Andoni Irulegi zela. Gerra hasi zenean, eta frankistak Donostian sartu zirenean, preso hartu eta Hernanin fusilatu zuten. Haren tabernari «Intza» izena kenarazi eta «Bar España» jarrazazi zioten.

Aipatu dugun Gipuzkoako euskaldunen irratia-entzuteko mira haren lekuko da Zubimendi beraren olerki bat, hain zuzen



Irratsaioen egitarauak koaderno batean gorde zituen

bere ahotsean irrati bidezko lehen saio
hartan entzun zen aurreneko gauza:

Ua, ua emendik, otsa!
abil azkar, pizkor, abotsa!
Gure izkuntzen agur laztana,
ludiko euskeldun danorengana
ortxe dijua..
Ua... ua...!

Eusko erriko anai danori
eman akiok laztan beroa.
Bere barrendik irtendakoa
dek gaurko oyua:
Ua... ua...!

Saio haien grabaziorik ez zaigu geratzen,
tamalez. Baina bai, egitarauak. Eta han
egin ziren hitzaldi mamitsu asko idatzita.
Izan ere, bai Luzearrek *El Día*n bai Zubi-
mendik *El Pueblo Vascon* ere argitaratu
egiten zituzten asko eta asko. Denetarik
dago, Estatutuaren aldeko mintzaldi su-
tsuak, herrietako kontuak, poesiari bu-
ruzko jardunak...

BERTSOLARI GUDUAK

Beste alor batean ere bultzatzaile han-
dia izan zen Zubimendi. Kantazalea zen,
esana dugu, baina kanta ez ezik maite



Estropadak zuzenean irratiiz kontaktzen, Igeldo menditik



«Zubimendi'tar Joseba Adiskide miñari biotzetik
(azaroak 27 - 1935). Basarri»



Txirritari omenaldia (Errenteria, 1936). Zutikakoen artean seigarrena, ezkerretik hasita, Zubimendi; zortzigarrena, Luzear. Bertsolari eta antolatzaileak elkarrekin

zuen hitza, hitzaren jolasa eta jokoa, maite bertsolaritza. Berak goraipatu zuen lehen aldiz egunkari batean Iñaki Eizmendi izeneko bertsolari gazte bat: Basarri alegia, eta lagun handia izan zuen gainera, baita deserriko ordu mingotsetan ere. Bertsolaritza berriaren bultzatzailerik kementsua izan zen. Alderdi teorikoa Aitzoli aitortzea ongi dago, baina alderdi

praktikoa Zubimendirena eta Teodoro Ernandorenarena izan zen. Haiek ekartzen zituzten bertsolariak, haiek gaia jartzen...

Eusko Gaztediko gazteak jarri zituen Zubimendik bertsolariek kantatu ahal arkatzez bertsoa kopiatzeko artean iaio. Berak antolatu zuen, 1936ko uda-

berrian, Txirritari Errenterian egin zitzaion omenaldi famatua. Han atera zen argazki historiko hartan daude Zubimendi, Luzear, Ernandorena eta Aitzol, bertsolariez inguratuta, Txirrita zaharra erdian eserita dutela. Besteak beste Zubimendik antolatu zituen Bertsolari Guduak, 1935ekoa eta 1936koa. Basarri eta Txirrita irabazle atera ziren haiek.

Egun seinaleak gelditu ziren bertsoza-
leen oroitzapenetan San Sebastian egu-
neko eta bezperako haiek. Baina ordu
arte ez bezala, han kantatu ziren ber-
tsoak ez zituen haizeak eraman. Zubi-
mendik jarritako gazte haiek jaso baitzi-
tuzten paperera, eta gero Zubimendik
berak argitaratu zituen, denak ez bada,
asko liburu gogoangarri batean, eguna-

[illegible][illegible][illegible]

Bertsolari guduak: Puntuazio orria, musika
oharrak gaiak jartzeko, eta diru kontuak



Bertsolari guduak: Basarriri sari ematea.
Zubimendi, Basarriren atzean

ren kontaketa-erreportaje ederra egiten zuela. Aitzolek aitortzen dio lana hitzau-rean: «Lagun eta adiskide mami degun Zubimenditar Yosebak liburua borobil-du digu. Gudaketa berritze onetan ber-

tsolarien ezten eta eragintzaille Zubi-mendi zaigu; beroni zegokion ba legez orrialde oiek taiutzea. Txukun asko ger-tatu ondoren, Euskaltzaleak irakurleen-gana dakarki». Egia esan, paperezko «Hitzetik hortzera» bat da liburua.

Lehen bertsolari gudua Poxpoliñ An-tzokian egin zen. Donostiako Kursaa-lak sotoan zeukan aretoan. Bigarrena, leku handiago batean egin zen: Victoria Eugenia. Zubimendi bera epaimahaian egon zen, Aitzol, Txomin Olano, Toribio Alzaga, Manuel Lekuona eta Jose Olai-zolarekin batera. Eta haren puntuazioak nolakoak izan ziren Iñaki semeak gorde-zen ditu koaderno batean.



Epaimahaia eta bertsolariak

Errenteriako omenaldia 1936ko martxoan egin zitzaion Txirritari, bigarren bertsolari gudian txapela irabazi ondoren. Bertsolaria urte hartako ekainean hil zen, hilabete geroago hasiko zen gerra itsusia ikusi nahi izango ez balu bezala. «Semiak gerraa ez juteatik mutilzar» gelditu zenak nahiago izan zuen hil, gerra nola pizten zen ikusi baino.

LIBURUAK LABERA

Baina gerra piztu egin zen eta errepublikazaleek hilabete pare bat eutsi bazioten ere, azkenean Donostian sartu ziren Francoren osteak. Artaxonako berrogei txapelgorri haiek Ategorrietatik behera sartzen ari zirela, Urbietan kalean mugimendua sumatzen zen. Inguru hartan, San Martin kalean, okindegi famatu bat

zegoen: La Vienes. Joseba Zubimendi alde egina zen ordurako, eta familia guztia erabat izututa beste askoren bidetara jarraitzekotan ziren. Etxean geratzen ziren Josebaren liburu batzuk: urte bete lehenago argitaratu zuen *Zumalakarregi* olerki liburuxkaren kutxa bat edo beste. Denak hartu eta txapelgorrien beldur eraman zuten okindegi hartako labeen erretzera.

Eusko Gudarostea antolatu zenean, bertan sartu zen Joseba Zubimendi. Itxarkundia batailoian destinatu zuten. Ia berrogei urte zituen eta intendentziako komandante izendatu zuten. Batailoi hartan zeuden Koldo Mitxelena gudari huts eta Alexander Lizaso txistularia, Zubimendik irratsaia hamaika aldiz eraman zuen gizona, kapitain.



Kanbon, senar-emazteak, Xabier eta Iñaki semeekin;
Xabier semearekin Kanboko Uraldian

Ez zuen denbora asko egin lan horretan hala ere, Intxortako guda-oinetik eba-kuatu zuten Gernika ondoko Errigoitia-
ra. Handik ikusi zuena badakigu. Biogra-
fia honek bat egiten du hasierarekin eta
bukaerarako bidea hartzen du.

KANBON, MINEZ

Gernika kixkalia utzi eta nola edo hala
Bilbora iristeko modua egin zuen. Han-
dik, berriz, Eusko Jaurlaritzak Lapurdira
bidali zuen hegazkinez. Lehenago joanak
ziren emaztea eta haurrak. Kanbon hartua
zuten egoitza Uraldia etxean, eta han bil-
du zitzaien aita eta senarra 1937ko udan.
Aldian behin Baserri bertsolaria joaten zi-
tzaion lagun egitera eta baratza zaintzera.


Kanbon egon zen bi urte haietan ez zen
geldi egon, lanean jardun zuen atertu gabe
Joseba Zubimendik. Euskara-frantse-
sa-gaztelania hiztegi bat hasi zen presta-
tzen Lapurdiko euskara oinarri harturik.
«A»tik «Z»rainoko 325 fitxa mekanogra-
fiatu utzi zituen, adibideekin. Hori aski
ez eta, batera eta bestera mugitu zen ber-
tako bertsolari zahar eta gazteen berri

biltzeko. *Euzko Deyarako* eta *Euzko En-*
darako idazten jarraitu zuen.

Egin beharreko konponketa batzuk bi-
tarte, Amatchi etxera aldatuak zeude-
la hil zen idazlea, 1939ko irailaren 28an,
bularreko gaitzez.

Hala kontatzen du Koldo Izagirrek lehen
aipatutako lanean: «Donostian denda edu-
kitako Peries jaunak etxe bat utzi zien Zu-
bimenditarrei, Labastidan. Hutsik baitzeu-
kan, eta alemanek okupatzea nahi ez. Hara
joan zen Maria Darras alarguna, senarra-
ren gaitzak kutsatu beldurrak batera eta
bestera sakabanatuak zeuzkan semeak os-
tera bilduta. Espainian gerla amaitutakoan
Donostiara itzuli ziren Zubimenditarrek,
baina, badaezpada ere, senarra zenaren
paperak egoki antolatu eta Labastidatik
bertan zeukan Belokeko artxiboan utzi zi-
tuen, noizbait eskuratzeko asmoz. Hala
egin zuen gero Iñakik, seme nagusiak».


Iñaki Zubimendiri entzuna dakit behin
bakarrik ikusi zuela negarrez haien aita
zena. Unión Radioko bere lankide bati
irratiz entzun zionean Gernika gorri se-
paratistek errea zela.



Kanbon hasi zuen koaderno: «Kanbon 1938gn urtean asia aut, liburutxo. Amaia nun? Ire orriak betetzera iritxiko ote nauk? Ez al aiz luzetxo? Osasun ta indarrez ez netxebillek aberats; bañan itxaropena beti zutik, iri kantako dizkit ene samin ta pozak, neke ta alaitasunak...»

ZUBIMENDIREN IDAZLANAK

Zubimendiren lanak, garrantzitsuenak
behintzat, aipatu ditugu, ez da obra luze-
ko autoreak. Olerkiak idatzi zituen, kan-
tuak itzuli zituen, baina batez ere, eus-
karak zer behar zuen hura egiten zuen.
Jende askoren enkarguak jaso zituen.
Koldo Izagirrek ongi esaten duen bezala
«lan ilun eta errekonozimendu handirik
gabeko» asko. Horien artean itzulpenak
egin zituen. Itzulpengintza berezi samar
bat, harena: «Gelasio Aranburu, Gabriel
Olaizola, Pablo Sorozabal... garaiko mu-
sikariek behin eta berriz jo zuten Zu-




Mendizaleak aurrera abestiaren letra
Zubimendik egin zuen

bimendirengana kantuak egokitzeke, autore frantses eta alemanen liederrak euskaratzeko. Ertzean Kutxako zigilua daukaten kuartilla mekanografiatuetan oharra utzi zuen beti eskuz: “Halakok eskatuta euskaratua”. Poinlevé, Ravel, Mascagni, Jaroff, Brandes, Debussy... musika-ri ezagun askoren kantuak itzuli zituen. Gaztelania, frantsesa eta alemana zekiela ateratzen dugu bere oharretatik, “Itxaso! Olerkia. Aleman izkeratik euzkeratuba”. Harrigarria da hainbeste zereginetan murgilduta narraskeria barkagarri edukiko zukeen idazle honek idatziak


bildu eta sailkatzeko zeukan diziplina. Langile txukuna zen, batetik; autoretza-
ren kontzientzia zeukan, bestetik. Egia zen ordea, eskaera ugari haien zergatia argitze alde, Joseba Zubimendi ezin hobeto “kokatua” zegoela, irratirako bezala, kantuak egokitzeke ere: hizkuntzak zekizkien, idazlearen baliabideak zeuzkan, musika ikasia eta kantaria zen... Ba-
zeukan gure idazleak, egiazki, erritmoa-
ren zentzua. Atzerriko eta bertako erdal kantuak euskaratu zituen gehienbat (*Eusko Langillien Ereserkia*, adibidez, edo *La del pañuelo rojo* ezaguna, Lepoko gorri-
dunak / zoratu bainau ni...), [...] baina baditu berak sortutakoak ere, “Mendizaleak aurrera / goazen mendi gailurrera...” ezaguna bezala, nahiz eta inongo kantu-
tegitan sinaturik ageri ez».

Itzulpen luzeen artean, aipagarria da Je-
sus Guridiren *Mirentxu*, bi ekitaldiko eresantzerkia edo «sinfonia idilikoa». Al-
fredo Etxabek sortu eta, gazteleraz, Fe-
derico Romero eta Guillermo Fernández Shaw-k eratua; Guridik, musika; eta eus-
kal libretoa, Zubimendik. *Antzerti* aldiz-
kariak argitaratu zuen, 1934an.



Bera bizi zela, bi olerki liburu argitaratu zituen:

1. ABERRI OYUAK (1932). Errepublika hasi eta berehala argitaratu zuten. Liburuxka txiki bat da, azalik ere gabea, garai hartako tipografia arrazionalistaz idatzitako ABERRI OYUAK horrek egiten du azalarena. «Eusko Aberri ziñoparen [martiriaren, alegia] oroiz ta omenez» dator gero. Eta eskaintza: «Idaztitxo onekin artzen dan dirua, Ugarritza abertzale anai itxuaren alde dijua». Ugarritza hori, non-bait, itsua geratua zen eman zioten jipoi



baten ondoren. Ez jakin diru asko iritsiko zitzaion, baina Aitzolek egiten dion kritikan dioenez, bost mila aletik gora saldu ziren. Askotxo dirudi garai hartan euskaraz irakurri zezaketenen kopurua kontuan hartuta. Badirudi abertzaleen agerraldietan eta salgai jarriko zela. *El Día*n eta *Euzkadin* behintzat agertu ziren iragarkiak eta kritikak ere bai. Aitzolena eta Lauaxetarena, besteak beste. Hitzaurrea Jose Antonio Agirre lehendakariak egin zion, artean Madrilen diputatua zela. Politika da diputatuaren tesia: «Olerkari on

baten didarra bear zaigula, Mourlane Mitxelenak esan zigun. Baña geyagorik ere azaldu zigun: Euzko Araudi guztiak baxen onurakor izanen zala, geure izkuntza jasoko zuan olerkaria». Bitxia da Mourlane Michelenaren eta Agirreren arteko harreman hori, batez ere historiak nola banandu zituen ikusita. Berez, hamar olerkiz osatuta dago liburua eta denek dute, alde edo moldez, aberria gaitzat. Jendea pizteko literatura.

2. ZUMALAKARREGI (Edestiari buruz zortzi bertso-salletan eratutako poematxoa). Bi urte ageri dira azal gorri-beltz-zuri politean: 1835-1935. Hain zuzen, jeneral karlista hil zela ehungarren urteurrena zela eta idatzitako «poematxoa». Kontuan har dezagun *Aberri Oyuak* «olerkiak» zirela, autoreak berak hala bataiatuta. Zer gertatu da halako aldaketa bat gertatzeko hiru urtean. Nire ustez, Aitzolekin batera egindako bidea da. Olerkiak egitetik, bertso-sailak egitera pasatu zen Zubimendi. Eskatzen zaiona, alegia. Urte horietan sortzen dira Bertsolari-guduak eta Aitzolekin elkar hartuta dabil guztiz. Bertso-liburu baten aurrean


gaude, beraz. Bertso-sail bakoitzari bere doinua ezartzen dio: «Limosnatxo bat bertso-doñuakin abesteko» edo «Basarri bertsolariak oitura dun doñuz». Ez zuen oihartzun handirik izateko aukera izan liburuak. Okindegi bateko labean erreta bukatu zuen, esana dugu, tiradaren puska handi batek.

3. Eusko Jaurlaritzak euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez Parisen argitaratzen zuen *Euzko Deyan* atera zituen Joseba Zubimendik *Bertso-miñez* izeneko kronikak, 1939ko otsailaren 5ean hasi eta urte bereko irailaren 10a bitartean. Azken kronika, hil eta bi astera argitaratu zioten. 2002an, kronika horiek guztiak bildu eta Koldo Izagirrek kaleratu zituen liburu batean, Donostiako udalak lagunduta eta Alberdania etxearen eskutik. Liburu horretan, Koldo Izagirrek hala dio liburu honi buruzko xehetasunak azalduz: «Egileak, Kanbon, ez dauzka eskura Donostian kontsultatuko lituzkeen aldizkariak eta egunkariak. Gogoan dauzkanak zuzen ote dauden baieztza liezaioketen lagunak urrun ditu, hilak ez direnak. Kexu da pasadizoak eta bertsoak buruz eman



Euzko Deya (1939ko otsailak)

beharrez. Kanbon, ordea, inoiz ez bezalako patxada aurkitu zuen gure idazleak. Eguneroko betebeharretatik baja hartuta, euskalgintzarik ez zegoen inguru patxadatsuan, Joseba Zubimendi, agian lehen aldikoz, bere astiaren jabe izan zen. Eta musika bera baino indar handiagoz maitatu zuen bertsolaritzaz idazteari ekin zion. Kronika luze honetan idazle heldu gisa ageri zaigu Joseba Zubimendi. Idazkeraren teknikak artikulugintza ugari batean landuak eta menderatzen dituela, bere bi-



Kanboko hilobia

zitza aberatsean bildutako gertaerak txertatzen ditu historian, datuari lekukoaren oroitzapena eransten dio, bertsolariaren kantuari entzulearen gogoeta, exiliatuaren mindura, gerlako bizirauna denaren sentimenduak... Artikulu bilduma honek, izan ere, bertsolaritza dauka oinarri, baina gerlan hildako eta preso hartutako la-

gunen omenaldia ere bada, aldi berean. Joseba Zubimendik zerbait gorrotatzen bazuen, gerla zen. Beharbada tropa kolonialekin Afrikan egin zuen soldadutzatik zetorkion higuina. Mingarriro xelebrea gertatu zitzaion, nolanahi ere, arma bitarteko gudua ezagutu beharra, bertso bitarteko gudua maite zuenari».

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagaratik, eskerrak eman nahi dizkio:

- Zubimendi familiari, eta, batez ere, Iñaki Zubimendi Darrasi
- Koldo Izagirreri. *Bertso minez. Joseba Zubimendi*, Alberdania, Irun, 2002

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2009ko abuztua
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	Ipar, S. Coop. Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa:	Grafo, S.A. Cervantes etorb., 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-2983-0 (Lan osoarena) 978-84-457-2984-7
L.G.:	BI - 2283-09

BIDOGULEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco